

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- "Aupa Etxebeste".
22:00 Kale Nagusia.
Uztailak 7, osteguna.
- "Los Minions".
22:00 Goikoplaza.
Uztailak 15, ostirala.
- "Mad Max".
22:00 Etxeberrieta.
Uztailak 21, osteguna.

2016ko uztailaren 8a, 489 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

UDAN ZINEMA KALEAN

Lehia bizia kaletxikitarren eta goiburuarren arteko desafioan



San Esteban auzoko eta Kaletxikiko kideak igande arratsaldeko herri kirol lehiaren ondorengo taldeko argazkian.

San Estebango gazteak irten ziren garaile Kaletxikikoen aurka egin zuten desafioan.

Berdinketa gertatu zen lehen bi saiotan, eta beraz hirugarrena erabakiorra bilakatu zen. Segundu gutxiko aldearekin bada ere, Goiburukoak nagusitu ziren azken proban. Zazpi jarri zizkieten, denera: zaku karrera (30 kg), harri jasotzea (50 kg), lokotzak, ingudea (18 kg), pirrinka, txingak (25 kg) eta gurpil proba. Parte hartzaileak, honakoak izan ziren. **Kaletxikitarren** aldetik Josu Otaemendi, Iñaki Irulegi, Iñaki



Kaletxikiko Juanjo Agudo harria jasotzen.

Etxeberria, Mikel Agirre, Amaia Lakalle, Irati Loiarte, Juanjo Agudo, Lander, Maite Petrikorena eta Iñaxio Aizpuru; kapitaina, Mikel Irigoras.

San Esteban auzotik, berriz: Ane Zabala, Ion Beloki, Jon

Lopez, Nagore Ormaetxea, Ander Zabala, Jon, Extebe eta Miren Lopez de Munain, Unai Ormaetxea eta Iker Mujika; kapitaina, Xabier Urretabizkaia.

Lehia amaituta, bi taldeak



Goiburutik harria altxatzen Jon Lopez de Munain aritu zen.

elkarrekin afaltzeko elkartu ziren. Galtzaileen kontura, noski.

Abuztuaren hasieran, San Estebango jaietan, errebantxaz gozatzeko aukera izango da.

[ANDOAIN, 4-6. ORRIALDEAK]

Asier Arrillaga zuen izena



Ekainaren 30ean Elnelat enpresan izandako lan istripuaren ondorioz hil zen Asier Arrillaga gaztea. Aiarra zen, eta denbora zeraman Urnietan lanean. Haren heriotza etxekoentzat, lankideentzat eta Aia-Orioko lagunentzat kolpe handia izan da.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak

Uztailak 9, larunbata

Eguerdiko 12:00tan hasita, larunbat honetan Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak banatuko dituzte Basteron, Udalaren eta Jaurlaritzaren eskutik. Hiru sari banatuko dituzte aurtengo edizioan:

- Sari nagusia: 9.000 euro, agiria eta Lakaren eskultura.
- Kazetari Berria saria: 3.000 euro, agiria eta Lakaren eskultura.
- Epaimahaiaren Sari Berezia.



Denda berritu dugu, zatoz ikustera!

gozotegia

arruti



Zumea kalea, 18
943 593 777 - Andoain



Jaietako alkate txikiak

Paula Segurado Erauskin eta Alain Ugarte Beristain izango dira aurtengo San Migel jaietako Alkate Txikiak. Aurreko ostiralean egin zuten hautagaien arteko zozketa.

Saharako haurrak herrian

Dahba eta Hanan Urnietara iritsi berri dira. Dagoeneko aurreko urteetatik herria ezagutzen dute, baita haien udako harrera familia ere. Uztaila eta abuztuaren izango dira Urnietan. Hilabete horietan urteroko mediku azterketa egingo diete, beharrezko botika eta elikagaiak eskuratuz. Saharako uda beroa saihestuko dute, bide batez.

Donosti Cup Urnietan

Nazioarteko gazte mailako Donosti Cup futbol txapelketaren XXV. edizioan, aste osoan zehar partidak jokatuko dira Urnietako futbol zelaietan. Ostegun gaua bitarte dozenaka partida jokatuko dira.

Iker Hernandez urnietarrak Athleticen jokatuko du

Realak utzita azken denboraldia Barakaldon egin eta gero, txuriurdinekin urnietarraren kontratua ez berritzea erabaki zuten. Iker Hernandezek, zorionez, buruhauste handirik ez du izan Athletic taldeak bi denboraldirako fitxatu baitu. 22 urteko aurreraria Athletic B taldean arituko da.



Iker Hernandez urnietarra.

Gaztaroa Real Sociedad taldean egin du, eta denborate horretan estatu mailako selekzioetik deitu izan dute 17 eta 20 urte azpiko lehiaketetan parte hartzeko. Real Sociedad taldeko ibilbidea amaituta, Bilbon jarraituko du futbolari gisa. Zorte on Iker!

Udabenturarekin irteera ugari datorren astean

UDABENTURA

- Uztailak 11, astelehena: 11:30-17:30. Surf egitera Zurriolara.
- Uztailak 12, asteartea: 16:00-20:00. Zaldian ibiltzera Lasarte-rra.
- Uztailak 13, asteazkena: 15:00-20:00. Piraguan ibiltzera Urumea ibaira.
- Uztailak 14, osteguna: 10:00-14:00.

Orientazio ikastaroa Barrantza mendian.

- Uztailak 15, ostirala: 10:00-18:00. Eskalada eta egun pasa.

UDABENTURA AMAITUTA, STREET ART TAILERRA

- Uztailak 18, 20 eta 22: 10:00-13:00. Street Art tailerra, 1.
- Uztailak 19, 21 eta 22: 10:00-13:00. Street Art tailerra, 2.

Aiurriko posta elektronikoak

Aldaketa

Webguneak eta posta elektronikoz ezberdinek .eus domeinua dute, beraz, email bidezko komunikazioa lantzeko garaian kontuan hartu beharrezkoa da.

Emailak:

- Andoain: andoain@aiurri.eus
- Urnietan: urnieta@aiurri.eus
- Zorion-agurrak: diseinua@aiurri.eus

Udal inbertsioak hizpide ostegun honetan, arratsaldeko 19:00etan

Aurkezpena Lekaion

Datozen urteetan hamaika inbertsioen inguruan erabakia hartu aurretik, Urnietako Udalak udaberrian herritarren artean parte hartze prozesua abiarazi zuen. Galdeketa horren ondorioz kirolegia berritzea eta San Juan plaza-Etenea arteko igogailua eraikitzea izan ziren boto gehien jasotako proposamenak. Bi egitasmo horiek aurrera eramateko aurrerikusa zeuden 4 milioi euroak gaindituko dira. Izan ere, Udal iturrien arabera, Kirolegia eraberritzeak 3.750.000 euroko kostua izango du. Gogoan hartu behar da diru kopuru hori aurreko urteetatik bildutako gerakina edo remanentea dela, urtez urte onartzen diren Udal aurrekontuetatik kanpo dagoena hain zuzen. Udalak iragarri duenez, lanei hasteko prozedurak martxan jarri eta obrak hasterako urtea igaroko dela adierazi du.



Udal iturrien arabera, Kirolegia eraberritzeak 3.750.000 euroko kostua izango du. Gogoan hartu behar da diru kopuru hori aurreko urteetatik bildutako gerakina edo remanentea dela, urtez urte onartzen diren Udal aurrekontuetatik kanpo dagoena hain zuzen. Udalak iragarri duenez, lanei hasteko prozedurak martxan jarri eta obrak hasterako urtea igaroko dela adierazi du.

HITZ-GEZIDUNAK

		Azaldu ▼	Ospetsu ▼	Ergelkeriak ▼
		* IRUDIKO IBAIA	Asko	Erasoa
▶				
▶		Agertu		
▶		Izanak		
▶				
Horma gaineko irtenune	Su-etenak	Ur asko du		
Pl., hezurretako gailtz	Kanadako probintzia	Lehor		
▶				
Ingalaterrako hiria			Mementu	
Tronua			Herri bateko kide	
▶				Ez eme
				Sexu eme
Norbait			Galloa	Bat
Bururatu			Zirkonia	Dago
▶			Kraka	
			Bokala	
Zakar bihurtuak				

HIEROGLIFIKOA



Zutariaren goiko atala

ERANTZUNAK

Kapitela

K	A	U	T	R	V	K	V	Z
A	D	O	Z	A	V	U	T	O
I	A	G	R	O	N	I		
R	A	I	A	O	I	A		
E	N	U	S	D	E	E		
K	A	K	I	S	T	R	A	R
U	S	U	R	T	U	T	E	
K	A	N	A	K	U			
I	R	E	R	A	G	E		
A	R	U	M	E	A			
K	O	E						

Erraustegiaren aurkako mugimendua eratu da urnietarren artean

Urnieta Bizirik plataforma sortu dute

Urnietatik kilometro gutxira Zubietan jarriko duten erraustegiaren aurka zenbait herritar biltzen hasi dira Urnietan. **Urnieta Bizirik** izenpean, plataforma sortu eta hasierako bileretan berrehun lagun inguru bildu dira. Kopuru polita. Adin eta estilo ezberdinetako jendea bildu da: ikasleak, gazteak, gurasoak, emakumeak, gizonezkoak... Jende gaztea mugitzen ari dela eta hori oso positiboa dela adierazi dute plataformako kideek. Guztiak ere helmuga berarekin ari dira lanean: "Helburu bera lortzeko ari gara lanean. Gaia politizatuta egon arren, ahal den neurrian hortik aldentu eta herritar modura ari gara lanean".

Duela hamabi urte kezkatuta zeuden bezalaxe, orain ere kezkatuta daude. Are gehiago, oraingo egoera "kaltegarriagoa" dela namarmendu nahi izan du **Fran Bravok**: "Haizea dela eta, kokapenagatik okerragoa dela esan-gu nuke; baina badirudi jende-ari kilometro pare bat urrutia-ego egoteak lasaitzeko motiboa ematen diola".

"Kezkatuta eta beldurtuta" daude, ordea, Urnieta Bizirik taldekoak. Horregatik, zenbait ekintza egiteko asmoa dute: mendietara joan eta erraustegiaren aurkako argazkiak atera, sare sozialetan oihartzuna izan, herrian bertan jendea pizteko ekintzak, antzerkiarekin lotutako ekintzak... Sinadura bilketa abian da ere, horrek proiektua atzeratzen laguntzen duelako, eta laster, eskuragai izango dira "Erraustekarik ez, eskerrik asko" dioten pankartak. Gainera, uda pasa ostean, Sanmieletan ekintza indartsuak egitea aurreikusten ari dira.

Lehen bileretan, plataforma taldetan banatuta dago eta ba-



Mertxe Pecharroman, Juankar Solis, Mertxe Zapiain eta Fran Bravo.

koitza bere aldetik "gogor" ari da lanean. Herritarrak informatzeari garrantzia handia eman diote: "Ikusita jende askok zein egunkari irakurtzen duen, bertatik jasotzen diren mezuen aurka egin behar dugu", jakinarazi du **Mertxe Zapiainek**.

Informazioa "gordeta" dagoela salatu dute eta hori herritarrei jakinaraztea da beraien helburuetako bat: "Jende-ari jakinarazi behar diogu zer gertatzen ari den". Gainera, herritar askok erraustegia jarriko dela eta irtenbide gehiago ez dagoela "asimilatuta" dutela adierazi dute: "Inguruan asumituta dutela ikusten dugu, proiektua gelditzea ezinezkoa balitz bezala edo beste irtenbiderik egongo ez balitz bezala. Horren aurka borrokatzea zaila da, baina saiatzen ari gara".

BIDEAN ATZERA

"Orain arte udaletxetatik birziklapena lantzen aritu gara, hori delako bidea eta sistema horretan sinesten dugulako. Bat-batean erraustegia jartzen badigute, lan horrek ez du ezertarako balioko. Ez badugu hemen nahi-

Informazioa "gordeta" dagoela salatu dute: "Jende-ari jakinarazi behar diogu zer gertatzen ari den"

koa organiko sortzen, kanpotik ekarriko dute. Beraz, birziklapena ez du inongo zentzurik edukiko erraustegia egiten bada", adierazi dute.

Europa mailan, Gipuzkoa birziklapen maila "onean" dago. %80tik gora birziklatu daitekeela erakutsi dute zenbait herririk. Horregatik, gobernuaren aldetik "kontraesan handia" dagoela azaldu dute, birziklapena sustatzeari batera, erraustegia jarri nahi dutelako. "Hori ezin dugu onartu", ozen esan dute. "Birziklapenari jarraipena ematea eta sistema horrekin aurrera egitea da irtenbidea".

PARTE HARTZEKO DEIA

Urnietarrei erraustegiaren aurka mobilizatzeko deia luzatu diete. Izan haur, gazte edo heldu, euskaldun nahiz erdaldun. Hizkuntza ez dela oztopo izango argi utzi nahi izan dute eta, beraz, guztiak plataformarekin bat egitera animatu diete. Intere-
sa duen oro beraiekin harremanetan jarri daiteke:

- Facebook orrialdea.
- urnietabizirik@gmail.com.

FINANTZAKETA

Horrez gain, aurrerantzean egingo dituzten ekintza guztiak ekonomikoki laguntzeko kontu korrante bat ireki eta Xauxar tabernan itsulapiko solidarioa jarri dute.

Kontu korrantea:
IBAN ES74
3035-0148-18-1480032325

Gozatua Bisaurin aldean



Eguraldi ederrarekin igoera egin zuten Bisaurinera.

Ikasturteari amaiera gogoan-garria eman diote Zanpatuz mendi elkarteko kideek, aste-buru osoko egonaldiarekin. Gozatu handia hartu zuten Bisaurin gainean, aurreko igandean. Denera, 40 lagun egon ziren Lizarako aterpean eta horietatik 35 igo ziren Bisaurinera. Argazkiak ikusgai ipini dituzte Zanpatuz.eus webgunean.

Ibilbide laburra du Zanpatuz mendi elkartek, baina gaur gaurkoz mendizaletasuna sustatzeko lanean fin ari dira. Antolatuta dituzten irteerak ezberdinetara makina lagun hurbildu dira.

Udan atseden hartu ostean, udazkenean denboraldi berriari ekingo diote. Ikusitakoak ikusita, gogotsu ekin ere.

Asier Arrillagaren omenez



Orioko eta Aiako lagunek astelehen arratsaldean bilkura egin zuten Orion.

Urnietarra ez bazen ere, Aiako gaztearen heriotzak samina ekarri du Urnietara. Udalak, esaterako, doluminak helarazi dizkio Arrillagaren familiari.

Aurreko ostegunean, al-tueran lanean ariz eta istripua izan eta zauri larriak izan zituen. Ordu gutxira hil zen, ospitalean. Egunean bertan istripua salatze-ko enpresaren kanpoaldean bilkura jendetsua egin zuten. Astearte goizean bigarren bilkura egin zuten, Asier gogoa-
n. LAB sindikatuak Urnieta-ko istripuen harira oharra argitaratu zue: "Hamaika aldiz salatu dugun arren, berriro

diogu gertakari hauek ez direla kasualitatea. Eta, beraz, gogorki salatzen dugu istripua. Gogorazki behar dugu Euskal Herrian 2016an jadanik 29 langile hil direla lan istripuz, gaixotasun profesio-nalek hildakoak zenbatu gabe. Zifra beldurgarri eta onartezin hauek agerian uzten dute Euskal Herriko langileriak jasaten dituen lan baldintza prekarioak".

Astelehen iluntzean bestalde, oriotarrek eta aiarrek Orioko plazan bilkura egin zuten Arrillagaren senideei babesa adierazteko; eta, bestetik, prekarietatea salatzeko.



Astearte goizean Asier gogoan bigarren elkarretaraztea egin zuten Urnietan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

KALETXIKIKO JAIAK 2016

Auzotarrez gain, herrikide ugari hurbildu da Kaletxikira

Kandido eta Txikitxoak, sardin jatea, sagardo dastaketa, danborrada, auzotarren bazkaria, herri kirol desafioa..., hamaika hitzordu izan dira Kaletxikin asteburu bakarrean.

Hirurogeita hamabi ordu izan dira, ia etenik gabekoak. Jai Bartzordeko kideak pozarren egon daitezke auzotarren eta herrikideen parte hartzea handia izan baita.

Ospakizun betean ibili eta gero, hondeamakinek auzunea laister hankaz gora jarriko dute. Ur hoditeri berria sartzeko eta eraikin zaharrak eraisteko beste "musika" bat nagusituko da orain, obrek ateratako hostek eskainiko dutena.



Goiburuarrek trikiti doinuen atzetik kalejiran egin zuten desafiorako sarbidea.



Dantza soka igande eguerdian, auzoko bazkariaren aurretik.



Mikel Arregi aurtengo Kandido, kalejira hastear zenean. Haren ondoan Ainara Loiarte bere emaztea.



Kaletxikiko lagunak kantuan aritzeko elkartu ziren, ostiral iluntzean.



Sardinak erretzen eta zerbitzitzen ibili ziren auzokideak.



Ilara luzeak sortu ziren sardin jatean.



Kantujira taldea larunbat eguerdian jai girotzen aritu zen.

KALETXIKIKO JAIK 2016



Jaietako hitzordu zirrargarrietakoa izan ohi da kaletxikiar askorentzat, larunbat gauekoa.



Patxi Mendikute Ontza elkarteko kidea.



Nahia Barea, Alaia Zalakain eta Asier Arabaolaza.



Danborrada larunbat gauean, Berrozpeko ermitara sartu aurretik.



Sagardo dastaketara ere jendetza hurbildu zen.



Etxeberria eta Aiertza lan eta lan sagardo dastaketan.

Sagardo dastaketa



Petritegi, Sarasola eta Gaztañaga izan ziren, hurrenez hurren, onenak.

Sagardo lehiaketaren XXIII. edizioko lehen hiru sailkatuak hauek izan dira:

1. Petritegi (Astigarraga).
2. Sarasola (Asteasu).
3. Gaztañaga (Andoain).

Pedro Mungia, Jon Garai-kotxea, Luxio Aranburu, Mikel Irigoras, Fermin Larraioz, Alberto Eskisabel, Lorenzo Usandizaga eta Jose Luis Perez epaimahaikideentzat Petritegikoa izan zen sagardo onena. 126,5eko pun-

tuzioa eman zioten. 122 puntuekin sailkatu ziren Sarasola eta Gaztañaga, bi horien artean desentpatea egin behar izan zutelarik.

Saritutakoez gain, parte hartu zuten sagardotegiak honakoak izan ziren: Andoaingo Mizpiradi, Urrietako Oianume eta Eula, Adunako Zabala, Aiako Satxota, Oiarzungo Ordozelai, Hernaniko Rufino eta Astigarragako Lizeaga eta Irigoien.

Urrezko ezteiak



Antonio Etxeberria, Inmaculada Lasarte, Juanita Ikutza eta Jose Luis San Sebastian.

Igandeko auzo bazkarian omenalditxo egin zieten auzoan urrezko ezteiak ospatu ospatu dituzten bi senar-

emazteei. Biak aski ezagunak: Antonio Etxeberria-Inmaculada Lasarte eta Jose Luis San Sebastian-Juanita Ikutza.

Auzoko krosaren podiuma



Sailkapena, gizonezkoak:

- | | | |
|-------------------|-------|---------|
| 1 Ibai Alba | 22:51 | Hernani |
| 2 Unai Señorán | 23:16 | Irura |
| 3 Mikel Rodríguez | 23:32 | Andoain |

Sailkapena, emakumezkoak:

- | | | |
|--------------------|-------|------------|
| 1 Lourdes Colomo | 28:25 | Zizurkil |
| 2 Arantxa Abukarro | 32:04 | Berastegi |
| 3 Montse Garmendia | 36:37 | Hondarribi |

KALETXIKIKO JAIK 2016

Luis Fracari omenaldia

Omenaldia pozez ezin kabiturik bizi izan zuen Luis Fracak, Kaletxikiko jaietan igandean eskaini ziotena. Alberto Agirreren ostean bera izan zen urte luzez Andoaingo Udal Musika Bandako zuzendaria.

Oroitzapen gozoa utzi zuen herriko musikari askorengan, musikari eta irakasle gisa. Alicia Sanz emaztearekin batera hurbildu zen Kaletxikira, omenaldia jasotzera.

Gora Kaletxiki txarangak hamahiru urte darama Andoaingo auzo eta kaleak alaitzen. Aurten iraganean arrasto sako-na utzi zuen **Luis Fraca Royo** gogoan hartu zuten. 87 urte ditu Luis Fracak, pattal dabil osasunez baina hunkituta agertu zen Kaletxikin.

Joxe Ramon Berrondo txarangako kideak hartu zuen hitza ekitaldiaren hasieran. Gora Kaletxiki bezalako txaranga herrikoi bat urtetan bizirik iraunarazteko **Jesus Ibañezek** jarritako kemena azpimarratu ostean, omenaldi ekitaldiaren zergatia adierazi zuen: "Txarangako kide beteranoenek, beti goraiatu izan digute Luis Fraca Bandako zuzendaria izan zena. Uste dugu omenaldiak, omenduak bizi diren bitartean egin behar direla, eta horrexegatik gaurko ekitaldi hauxe. Beti entzun izan dugu Fraca langilea eta xumea izan zela Andoainen, fina izan zela bandan ziren ego pertsonalak kudeatzeko garaian. Musika konposatzaile gisa ere, badakigu fenomeno izan dela. Gaur, Luis, zure omenez, zure doinueta bat, "Andoain" mar-txa doinuekin batera. Geure erreper-torioan sartuko dugu hemendik aurrera, eta horrela, Andoaingo musikagintzaren



Luis Fraca, Alicia emaztearekin eta 1963ko bandako zenbait kideekin batera: Paco Perez, Lucio Urribesalgo, Felix Sanz, Luxio Aranburu eta Joxe Mari Oartzabal.

idiosinkrasian sartu ahal izango da".

Berrondoren mintzaldiaren ostean, Urkiko dantzari-ek egindako aureskua eta oroigarri-ri txanda heldu ziren. Txar-rangak 1963ko argazki historiko-ko oparitu zion, honako esal-dia daramana: "Musikaren kul-turaren aldeko egindako izugar-riko lanagatik, esker onez". **Ontza** eta **Batzokia** elkarteek ere oroigarri bana eskaini zioten.

Ekitaldiari amaiera emateko, musika emanaldia eskaini zuen

txarangak **Joxe Mari Oartzaba-lek** zuzenduta, honako doinue-kin: *Andoain, Tolosarrak, Txakurraren partia, Zapa, Batzokia, Ontza* eta *Andoaingo Ere-serkia*. Azken hiru piezak Bat-zokia eta Ontza elkarteen danbor eta kupel joleekin bate-ra egin zituzten.

Luis Fracak omenaldi ekital-dian **Alicia Sanz** emaztea eta ikasle izandako **Myriam Ulanga** alboan izan zituen. Andoaingo udalak antolatuta 2006an Fra-cari eskaini zitzaion omenaldi-

ko kontzertuan parte hartu zuen Ulangak, **Junkal Gerrero** eta **Ana Belen Garcia**ekin bate-ra. Fracak doinuak eskaini izan dizkio Ulangari, "Hiruga-rren kontzertua piano eta or-kestarako" izenburua darama-na da horietako bat.


MUSIKARI ESKAINITAKO BIZITZA Luis Fraca Zaragozako Ainzon herrian jaio zen, 1929an. Bost urte zituela Zarautzera joan zen bizitzera, familiarekin ba-tera; bertan bizi da egun ere.

Luis Fracak omenaldi ekitaldian Alicia Sanz emaztea eta ikasle izandako Myriam Ulanga alboan izan zituen

18 urte zituela piano eta armo-niako musika ikasketak amaitu zituen Donostiako Kontserba-torioan. Musikaren munduan murgildu zen harrezkero, eta Sestao eta Sos del Rey Catoli-coko Musika bandak zuzendu ostean, 1958an Andoaingo bandaren zuzendaritza kargua hartu zuen, oposizioz. 1972an Banda desegin egin zen eta harrezkero Andoaingo musika akademiako zuzendaria izan zen, bertan piano eta gitarrako ikasketak eskainiz. 1989an hartu zuen erretiroa.

Irakaskuntzaz gain, sortzai-lea izan da Fraca, eta konposi-zioaren eta piano errezitaldien arloa jorratu izan ditu maiz. Makina bat musika pieza sortu izan ditu, bere gozamen eta entretenimendurako aitortu izan duenez. Amaitezina da bere katalogoa, era guztietara interpretatzeko abestiez osatua: musika bandarekin, kame-ra musikarekin, pianoarekin, biolontxeloarekin, kitarrare-kin...

ANDOAINGO UDAL MUSIKA BANDA LUIS FRACAREN ZUZENDARITZAPEAN, 1963KO ARGAZKIAN



ANDOAINGO UDAL MUSIKA BANDA ZUZENDARIA: LUIS FRACA

URTEA: 1963

ARGAZKIA: TRUCHUELO

(1) Miguel Angel Gil, (2) Joxe Mari Hui-zi, (3) Mariano Arberas, (4) Bernardo Aizpurua, (5) Luxio Aranburu, (6) Bau-tista Aizpuru, (7) Francisco Etura, (8) Juan Omeñaka, (9) Juan Garrido, (10) Martin Amundarain, (11) Jose Luis Tapiz, (12) Joxemari Oartzabal, (13) Felix

Sanz, (14) Isidro Alkain, (15) Joxe Carrera, (16) Martin Canflanca, (17) Julian Zinkunegi, (18) Joxe Mari Etxe-berria, (19) Eugenio Etxeberria, (20) Luciano Urribesalgo, (21) Pio Huizi, (22) Enrique Rubiños, (23) Jesus Chueca, (24) Pedro Mari Alkain, (25) Paco Perez, (26) Angel Urrutia, (27) Pedro San Juan, (28) Luis Fraca, (29) Fernando Urribesalgo, (30) Jose Manuel Lopez eta (31) Juan Loinaz.

Kataluniako bere lagunaren eskertza, jaietan bertan izan eta gero

“Katto Amilibiari nire omenaldi txikia”

Nando Taló

2011ko San Juan jailetatik Andoainera etortzeko asmoa nuen, Axeri dantzako ekitaldia ikusi eta parte hartu asmoz. 2012ko Sanjuanetara hurbiltzeko gonbitea jaso nuen **Katto Amilibia** axeriaren eskutik. Dantza hari esker ezagutu nuen, nola egiten zen dantza ere bai, ilusio biziz erakusten baitzizkidan Axeri dantzako argazkiak. Musikari bezala Katalunian nituen betebeharrak direla eta, Andoainera hurbiltzea ezinezko egiten zitzaidan. Akats batek, giza akats batek uztailaren amaiera aldera Andoainera ekarri ninduen, Katto nire laguna joan zelako. Hutsik geratu nintzen.

Oso harro nago berarekin bizi izan nituen une ahaztezinak gogora ekartzen ditudanean. Oraindik orain oso gogoan dauzkat. Gizatasun handikoa, aholku asko eman zizkidan eta baita hurkoarenganako errespetua erakutsi ere. Saihestezina den min horren aurrean bere familiaren adiskidetasuna oparitu zidan, bere lagunena, bere bizitzaren zati izan zirenean. Gaur da eguna haiekin guztiekin une gogoangarriak elkarbanatu ditzakedala.

Aurtengoa etortzeko une egokia izan da, aurrera egiteko dena eman didan pertsonak lagunduta. Beti ondoan gidari lanetan **Jon Urtasun** dantzaria



Katto Amilibia eta Nando Taló lagun handiak ziren. Behean, aurtengo jaietan.

izan dugu. Gertutik Axeri Dantza ezagutu ahal izan dugu, baita familia bikaina osatzen dutela ikusi ere. Goizean goizetik euren tradizioa ezagutu genuen, euren ohiturak edota nola jantzen ziren ikusi. Jende berria ezagutu nuen, eta beste batzuk dagoeneko ezagutzen ninduten. Luxua izan zen niretzat. Oso autentikoa iruditu zitzaidan goizetik hasitako ohitura hori. **Xato Irazuk** eskaini zidan goizeko brindisarekin hunkituta nago. Eta sabela beteta salda goxo horri esker, kalejiran jarraitu genuen Goikoplazaraino. Hasi da Axeri dantza eta dena bere tokian dago txistularien doinua hasterako-

“San Martin elizara doa-zen eskilaratan, ikusleen artean nengoan, dantzarien pausoei begira, uneaz gozatzen”

an. San Martin elizara doa-zen eskilaratan, ikusleen artean nengoan, dantzarien pausoei begira, uneaz gozatzen. Atseginna, mundiala izan zen. Dendena bikaina, baita ikusle goa ere. Zinez bikaina! Oso polita!

Beste behin ere, ahaztuko ez ditudan egun gogoangarriak. Agur Axeri! Bihotz bihotzez, eskerrik asko Axeri Dantza! Mila esker lagunak!



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Kirol udalekuak Goizuetan



Gaztelekuko begiraleak eta gaztetxoak.

Aurreko astean zehar, ekainaren 28tik uztailaren 1era, Andoaingo pilota eskolako hogeita hamar kide Goizuetan izan ziren pala, zesta eta

eskuz arituz. Udaleku horien gainera erreka gozatze-ko aukera izan zuten, baita bertako haurrekin jolasteko ere.

Karrikako jaiak laster



Sardin jatea Karrikako jaietako hitzordu klasikoetakoa da.

Karrika, Andoain

■ Uztailak 15, ostirala

- 19:00 Txupinazoa.
- 19:15 Buruhandiak.
- 19:30 Haur txokolatada.
- 20:00 Sardin jatea.
- 22:30 80ko hamarkadako musika gogoan: DJ Tristan.

■ Uztailak 16, larunbata

- 11:30 Haur jolasak.
- 16:00 Mus partidak.
- 16:00 Puzgarriak.
- 19:00 Jumping kirol erakustaldia.
- 20:30 Afaria.
- 22:30 Danborrada Joselontxorekin batera.

22:30 DJ Nemux. Disko-festa. Ondoren, baratxuri zopa.

■ Uztailak 17, igandea

- 11:30 Meza.
- 11:30 Apar festa.
- 12:00 Toka.
- 12:30 Patata tortila lehia-keta.
- 12:45 Paella jatea, razioak euro batean.
- 18:00 Play back saioa. Ondoren, sagardo dastaketa.
- 20:00 DJ Tristan.
- 23:00 Jaien amaiera.

Jaien jarraipena: Aiurri.eus

Bigarren eskuko produktuen azoka



Postu ugari ipini zituzten Zumea plaza osoan.

Diskoak, liburuak, jostailuak, arropa,... prezio onean produktu ugari erosteko au-

kera izan zen “Zaharrak Berrituz” azokaren edizio berria.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larrazola
Kultur Bizitza

INISTORRI

TOKIKOM

ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzak

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeaba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

UZTAILAREN 7TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

- "Aupa Etxebeste". 22:00 Kale Nagusia. Uztailak 7, osteguna.
- "Los Minions". 22:00 Goikoplaza. Uztailak 15, ostirala.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: **Pajares**. Zumea kalea, 20. Urnietan: **Castilla-Larburu**. Urbieta, 7. Hernani.
- Gauez: **Urrutia**, Hernani. Uztailak 9-10.

Jaiak

Andoain

- **Karrikako jaiak:** Uztailak 15, 16 eta 17.
- **Etxeberrietako jaiak:** Uztailak 29, 30 eta 31.

Aisialdia

Urnietan

- **Goazen!** Gaztelekuarekin: Uztailak 7, osteguna. 15:00-20:00. Paintball. Uztailak 8, ostirala. 10:00-18:00. Santa Clara irlara egun osoko irteera.

Musika

Andoain, Zumea plaza

- 19:30 Mandragora taldea. Uztailak 14, osteguna.

Odol-emaileak

Urnietan

- 18:30-20:30. Uztailak 11.

Andoain

- 18:30-20:30. Uztailak 12.

Plenoa

Andoain

- 19:00 Osoko bilkura. Uztailak 14, osteguna.

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.EUS WEBGUNEAN

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Uztailaren 5ean urteak beteko ditu gure aitak. Zorionak eta muxu handi bat!! Etxeko partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Maialen, uztailaren 16an 9 urte beteko dituzu. Jarrai beti bezain alai eta maitekor. Etxekoak.


ANDOAIN

ZORIONAK



Uztailaren 5ean 5 urte. Txokolatezko muxuak! Zuen amatxo eta aitaxoak, Oñatz eta Naroa.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik. diseinua @aiurri.eus
Webgunea: aiurri.eus

619 163 537

ZORIONAK



Lide Sobradok 7 urte bete zituen ekainaren 29an. Zorionak bihotza, udona pasa. Muxu handiak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Inge Igarrik 9 urte beteko dituzte abuztuaren 9an. Zorionak eta ondo ospatu maitia. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Manex Mendizabal Ezeizak 17 urte beteko dituzte San Fermin egunean. Amona Miren eta aitona Esteban.

ANDOAIN

ZORIONAK



Nora Mendizabal Ezeizak 13 urte bete zituen ekainaren 8an. Amona Miren eta aitona Esteban.

ANDOAIN

